

UDALBATZAREN IDAZKARITZA



NAGUSIARI

Borja Sémper Pascual Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio alkateari, Kontxa pasealekuan ibilgailuentzat errei bat itxi dutela eta, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Udal erabakiak hartzeko irizpide argirik ez dagoenez eta herritarrei konfiantza eta gardentasuna transmititzeko informazio publikorik eman ez denez, interpelazio bat egin genion Gobernuari, ibilgailuentzat behin-behinean itxitako Kontxa pasealekuko erreia behin betiko itxi behar dutela eta, hiriko alkateak abenduko batzordean adierazi zuenez.

Neurri horren zergatia azaltzeko eman duten argudioa izan da obrek balio izan dutela erreia ixteak zirkulazioan nola eragingo duen neurtzeko, eta analisi horren ondorioz erabaki dutela errei hori betiko ixtea. Zergatik ez die Udal Gobernuak aurrez herritarrei jakinarazi erreia behin betiko itxi zitekeen ala ez aztertzeko baliatu dituztela lanak?

Are gehiago. Gertakarien sekuentzia aztertzen badugu, ikusiko dugu 2019ko maiatzean Gobernuak ustekabean harrapatu zituela herritarrak Kontxa pasealekuko errei bat itxita. Gobernuak orduan adierazi zuen hainbat astean egongo zela errei hori zirkulaziorako itxita, “euri uren hodiak desbideratzeko obra baten ondorioz”.

Euri uren kanalizazio arazo bat konpontzeko lanekin hasi zena Kontxako baranda berritzeko esku-hartzearekin osatu zen. Mugikortasuneko zinegotziak iragarri zuen lan horiek “ekainaren bukaera arte” iraungo zutela.

Baranda zaharra aldatzeko obren ondorioz egin beharreko behin-behineko desbideratzea zena behin betiko bihurtu zen azaroan, Tokiko Gobernu Batzarrean aztertu gabe eta herritarrei informazio publikorik eman gabe.

Gaiaren muinera sartu gabe, kezkarria da ~~Udal~~ Gobernuak berak hain irizpide desberdinak izatea. Izan ere, gertaeren ~~kontakizun~~ objektiboaren arabera, hasieran erreia aste batzuetarako itxi behar zuten, neurri hori ekainera arte luzatu zuten gero, eta, azkenik, azaroan, Kontxa pasealekua behin betiko itxi dute ibilgailuentzat.

Horiek hala direla, Talde Popularrak **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, herritarrei informazio argia eta gardena emateko eta Udalak hartzen dituen erabakiak aurreikuspen baten eta berme batzuen araberakoak izateko:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari argia izan dadila obra aurreikuspenak egiten dituenean, eta herritarrek aldez aurretik eta gardentasunez jar ditzala jakinaren gainean, bermeak, epeak eta helburuak zein diren adierazita.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean jakinarazteko herritarrei zer ondorio atera diren Kontxa pasealekuko erreia behin-behinean ixteko azterketatik horren arabera errei hori behin betiko ixteko.

Donostia, 2019ko abenduaren 11

Borja Sémpér Pascual

Alderdi Popularra udal taldearen bozeramailea